


# EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

## EAEko ekonomiak beherakada leundu zuen udako hilekoetan

BARNE PRODUKTU GORDINA  
Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA  
3. HIRUHILABETEA  
**-%7,7**




Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko jarduera ekonomikoak beherazko joera moteldu zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. 2020ko udako hilabeteetan COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko hartu ziren neurriek garrantzitsuak izaten jarraitu zuten arren, une honetan eskura dagoen koitunturako informazioak jarduera ekonomikoaren hobekuntza nabarmena erakusten du. Horixe islatzen du urte arteko tasen BPGaren

hazkundeak, %7,7ra jaitsi baitzen, urteko bigarren hiruhilekoan %20,0ra hurbildu ondoren. Erregistro horrek hobetu egin du Eusko Jaurlaritzak egindako zenbatespena (-%11,9), susperraldi motelagoa aurreikusten baitzuen. Hiruhileko arteko tasetan, susperraldia are dinamikoagoa izan zen. Zehazkiago adierazita, hiruhileko arteko jarduera ekonomikoa %15,2 handitu zen eta susperraldi horrek ez du aurrekaririk izan gutxienez 1995etik.

BARNE PRODUKTU GORDINA  
Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA  
3. HIRUHILABETEA  
**%15,2**




## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

### URTE ARTEKO ENPLEGUA

#### 3. HIRUHILABETEA

**-%6,5**



Lan merkatuari dagokionez, enpleguaren jaitsiera, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, %6,5 izan zen. Datu hori ere ez dator bat Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin. Izan ere, nahiz eta hobekuntza handia aurreikusi (bigarren hiruhilekoaren -%17,2tik hirugarreneko -%9,2ra), labur geratu da Eustatek aurreratutako erregistroarekin alderatuta. Hiruhileko batetik bestera, enplegu-

ak %13,3 egin du gora, hau da, ia 28 puntu egin du gora hiruhileko bakar batean.

Hasiera batean, aurreikuspenen arabera, EAEko ekonomiak hondoa joko zuen urteko bigarren hiruhilekoan, eta, ondoren, susperraldi jarraitua eta luzea izango zuen. Hala ere, bizi den kutsatze bolada berriak eta abian jartzen ari diren murrizketek zalantzan jar lezakete ibilbide hori.


## ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

### HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

#### 3. HIRUHILABETEA

**%13,3**



Iturria: Eustat